

# biblioteka

## LITERATURA SOLASALDIAK GAZTELANIAZ: JARRAIBIDEAK

---

- 2018/19 ikasturtean **3 ziklo** izango ditugu: *Literatura latinoamericana* (urria-urtarrila), *Literatura europea* (otsaila-martxoa) eta *Literatura y viajes* (apirila-maiatza).
- **Izen-ematea urriaren 1ean** hasiko da eta **ikasturte osorako** izango da. Bibliotekan bertan edo web orritik egin daiteke: [www.arrasate.eus/biblioteka](http://www.arrasate.eus/biblioteka)
- Taldeak **30 plaza** izango ditu eta lehenengo 30 izen-emateekin osatuko da. Liburutegia saiatuko da horientzat liburuak eskuratzen.

Izena eman duten gainontzekoak itxaron zerrendan geratuko dira.

- Taldeko norbait **2 saiotara etortzen ez bada**, kanpoan geratuko da eta bere tokian sartuko da itxaron zerrendako hurrengoa.

Asistentziaren jarraipena saio bakoitzeko asistentzia orriarekin egingo da. Ez ahaztu sinatzea.

- Liburuak irakurtzeko epea izango da eskura daukagun ale kopuruaren araberakoa. **Itzultzeko data errespetatzea** ezinbestekoa da taldeko guztiek liburuak irakurtzeko aukera izan dezaten.

Batzuetan liburuak formato elektronikoan ere eskainiko dira.

- Itxaron zerrendan dauden pertsonak nahi duten guztietan **etorri daitezke solasaldietara** aurrez abisatu gabe, baina liburuak beraien kabuz lortuta.

Eskerrik asko zuen lankidetzagatik